

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

982

*24/2022 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, zeinaren bidez onartzen baita Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Álava izeneko elkargoaren izena aldatzea eta, haren ordean, Colegio Oficial de la Arquitectura Técnica de Araba/Álava izena jartzea.*

Autonomia Estatutuaren 10.22 artikulua araberan, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eksklusiboa du elkargo profesionalen eta tituludun lanbideen arloan, alde batera utzi gabe Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan ezarritakoa.

Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Álava izeneko elkargoak estatutuen aldaketa onartzeko eskabidea aurkeztu zuen, non izena aldatzeko eskatzen baitu.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 28.2 eta 29.3 artikuluetan xedatuta dagoenez, profesionalen elkargoen izendapena aldatzeko, kasuan kasuko kontseilu profesionalaren txostena behar da, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez onartu behar du, eta, azkenik, aldaketa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eman behar da argitara.

Horiek oinarritzat hartuta, aipatutako elkargoak egindako eskabidea justifikatuzat jotzen denez gero, indarrean diren legeetan zehaztutako izapideak bete ondoren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko otsailaren 15ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Álava izeneko elkargoak izen hau izango du aurrerantzean: Colegio Oficial de la Arquitectura Técnica de Araba/Álava.

### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren 15ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.